



PRENTSA OHARRA

Basque Audiovisual Cannesekeo MIPCOM azokan hirugarren urtez jarraian

Eiken-Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterraren eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Nazioartekotze Planak 180.000 euroko inbertsioa egin du 2009. urtean

Euskadiko ikus-entzunezkoen alorreko enpresa nagusiak Cannesekeo MIPCOM azokan izango dira urriaren 5etik 9ra, hirugarren urtez jarraian, **Basque Audiovisual** markaren inguruan bilduta. MIPCOM sektoreko azokarik garrantzitsuenetako bat da, eta mundu osoko azoka nagusi bihurtzen du egun horietan frantziar hiria ekoizle, erosle, saltzaile, finantza agente eta banatzaileentzat.

Euskadiko ikus-entzunezkoen sektoreko enpresak atzerriko merkatu eta azoka ugaritan izan dira azken hamarkadetan. Nolanahi ere, Eiken-Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak parte-hartze hori sendotzea erabaki dute, eta ahalik eta enpresa kopuru handiena bildu nahi dute horretarako **Basque Audiovisual** markaren inguruan. Marka sendo dago gaur egun, eta Euskadin egiten den lana munduan ezagutarazteko balio du.

Eikenen **Nazioartekotze Planaren** bidez eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Niniak Programaren baliabideen zati bati esker, ikus-entzunezkoen alorreko berrogeita hamar bat enpresa, ekoizleak eta banatzaileak gehienak, **Basque Audiovisual** markaren inguruan bildu dira 2009an honako azoka eta ekitaldi hauetan parte hartzeko: MIPTV, MIF, *Sunny Side of the Doc* eta MIPCOM. Inbertsioa 180.000 eurokoa izan da, gutxi gorabehera. Ez alferrik, Eikenen 2009-2011 Plan Estrategikoaren bigarren erronkan irakur daitekeenez, **ezinbestekoa da Euskadiko ikus-entzunezkoen sektoreko produktuak atzerriko merkatuetan ezagutaraztea.**

“Krisi garai hauetan, gure asmo nagusia enpresei atzerrira irteten laguntzea da, ziurgabetasunik eza nagusi den egoera honi aurre egiteko” azaldu du Itziar Menak, Eikeneko Zuzendariak. Alde horretatik, datozen urteetan Klusterraren zeregina gidatuko duen printzipioetako bat honako hau izango da: **enpresei**

merkatu berrietara iristen laguntzea, aukerak identifikatzea eta gure eskaintza kanpoko merkatuetan ezagutaraztea.

Euskal ordezkari

Honako hauek osatuko dute euskal ordezkari Canneseko azokan: **3Koma** (“*El calendario del año*” - lehiaketa), **Bainet Zinema** (“*Hogar útil*” - kanal tematikoa), **Baleuko** (“*Black to the moon*” - animazio seriea), **Expressive** (“*Anima channel*” - animazio filma), **MediaBost** (“*Mystical*” – luzemetraia), **Pausoka** (“*Zorion Perfektua*” - luzemetraia), **Retelsat** (itsasazpiari buruzko dokumental seriea), **Silverspace** (“*Hiroku y los defensores de Gaia*” – animazio filma), **Western Films** (“*Vivo México*” - dokumental seriea), **Somuga** (“*The Howoldies*” - animazio seriea), **Audiovisual 21, K 2000** (“*Pásalo*” - entretenimendu saioa), **Moztu Filmak** (“*The last passage*”) eta **EiTB**.

Taldea Vitoria-Gasteiz Film Commission delakoak osatzen du, antolakuntza mota hauei bereziki eskainia dagoen jardunaldian parte hartuko duena.

Euskal ordezkariak 39 metro koadroko *stand* bat hartuko du *Palais des Festivals* aretoan, Galiziako Ikus-entzunezkoen Klusterrarekin batera, klusterren arteko lankidetzak ematen dituen aukerak aprobetxatzeko. **Basque Audiovisual** markak ikus-entzunezko teknologia erabiliko du enpresen produktuak egoki erakusteko; besteak beste, formatu handiko ukimen pantaila bat, informazio guztia modu egokian eskaintzeko.

Gainera, *on-line* katalogo komertzial bat ere eskainiko du Internet bidez azokak iraun bitartean (www.basqueaudiovisual.com), tresna ezin eraginkorragoa bezero eta lankide potentzialekin aldez aurreko hitzorduak egin eta bilerak hitzartzeko.